

- Zein mekanismok eragin du burtsen gainbehera? Eta zein ondorio du ekonomia errealean, hots, herritarren sakelan?

Burtsan saltzen eta erosten denak ez dauka zer ikusirik aspaldiko akzioekin: orain espekulaziorako tresna berezi batzuk saldu/erosten dira (deribatibak eta abar). Kontua ez da soilik lehengo kapitalismo industrialia aldatu dela. Afera askoz sakonagoa da. Ekonomia industrialia finantzializatu egin da. Finantza da nagusi eta berak ohiko kapitalismo industrialia bereganatu du.

Orain, jadanik existitzen diren aktiboetan inbertitzen da, gero aktibo horiek berriz saltzeko. Aktiboak kaxkarrak izan daitezke, baita zabor aktiboak ere, zeren inork ez baitu kontrolatzen aktibo horien izaera. (Okerragoa da airezko tresnekin jolastea: kasu, deribatibak eta holakoak saldu/erosteak). Beste aldetik, lehengo kredituak ez dira erabiltzen inbertsio zuzenean ekonomia errealean, FIREn baizik: (FIRE: **Finance, Insurance, Real Estate**, hots, finantza, aseguruak eta higiezin erreala).

Aktiboen sal erosketak horrek inflazioa ekartzen du, eta bankuetatik aterako kredituak arlo horretan erabiltzen direnez, eta ez ekonomia errealean, inflazioarekin batera langabezia ere azaltzen da. Eraitza txar horiek 2007-2008ko krisian ikusi genituen.

Hortaz, hona hemen lehen ondorio zuzena. Ekonomia erreala martxan jartzeko, FIREn ez inbertitzea, ekonomia errealean baizik. Bigarren ondorioa: FIREn inbertitzen duten espekulatzailak politika fiskal aurrerakoi berri baten bidez zigortu behar dira, zeren haien mozkinak espekulazio hutsetik baitatoz. Izan ere, krisiaren beste aldean politika fiskala dago. Biak txapon bereko bi aldeak dira. Krisiaren aurka gobernuen politika fiskal progresiboa erabili behar da. Hirugarren ondorioa: Bankuen kredituen izaerari ere begiratu behar zaio, zaborrak eta airezko gazteluak ez sartzeko salerosketen jolasean.

Inflazioa azaltzen bada, kontsumo-produktuak garestitu egiten dira. Gainera, langabezia dagoenez, gero eta jende gutxiagok dauka diru nahikoa egunero betebeharrak, nahiak eta desioak betetzeko. Hortaz, ondorioak ezin txarragoak dira langileentzat, eta oro har, herritarrentzat. Bitartean aberatsak gero eta aberatsago bihurtu dira. (Datuak badaude nonahi, estatistikak ikus daitezke edozein herritan, baita gure Euskal Herrian ere.)

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

FIRE:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-1>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-3>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/sua-fire-ote-3-burbuila-finantzarioak>

Finantza-kapitalismoa:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-kapitalismoa-eta-burbuila-ekonomia>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-kapitalismoa-versus-kapitalismo-industriala>

Politika fiskala:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/politika-fiskal-egoki-baterantz>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-politika-eta-politika-fiskala>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/praktika-fiskal-sendo-baterako-oinarriak>

Kredituak eta bankugintza berria:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/kredituaren-garrantziaz-hitz-bi>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/dirua-eta-kreditua>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zabor-ekonomia>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/bankuak-kontulari-sozialak>

Finantza-politika eta politika fiskala:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-politika-eta-politika-fiskala>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/subiranotasun-monetarioa-eta-fiskal>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/praktika-fiskal-sendo-baterako-oinarriak>

- Zurrumurruek burtsak aztoratzen ditu, baina merkatuen gainbeheraren gainean ere espekulatzen dutela aipatzen dute... Espekulazioa al da arazoaren muina?

Aurreko erantzunean jadanik ikusi dugu zer-nolako ‘aktiboak’ salerosten diren gaur egunean burtsetan. Espekulazioa da, inolako dudarik gabe, aferaren muina. Eta horri aurre egin behar zaio, kredituen izaerak kontrolatuz, eta, baldin eta espekulazioak segitzen badu, politika fiskal egoki, aurrerakoi eta progresibo bat aplikatuz. (Esan gabe doa nolabaiteko estrategia komun bat egon behar dela enpresarien eta langileen artean, zeren biak, hala langileak nola enpresariak, ustiatzen baititu kapitalismo finantzario berriak.) Zurrumurruen atzean espekulazioa dago. Egia da etorkizuneko perspektibak kontuan hartzen direla espekulazio horretarako, eta informazio ona eta zehatza duena burtsan edozein salerosketa egiteko prest egoten da beti.

Dena den, azken bolada honetan leku guztietan **zorra** aipatu izan denez, esan dezagun zertxobait horretaz. Alde batetik izua zabaltzeko **kalifikatze** edo **tasatze** agentzia batzuen txostenak erabili dira, zurrumurru horiek areagotzeko. Tasatze agentziek izua barreiatu dute arlo finantzarioan. Jende gehienak beldurtu dira eta gobernuak noraezean dabilta.

Baina guztiok ez dira beldurtu. Izan ere, **Diru Teoria Modernoan** aritzen direnak argi, garbi eta ozen salatu dute agentzia horien lana, aspalditik gainera. Bono pribatuen merkatuek badakite AEBetako gobernuak ezin duela huts egin arazo finantzarioengatik. Izan ere, inbertsiogileek arreta gutxi egiten diete agentzia horien txostenei. Bill Mitchel ekonomialari

australiarrak tasatze agentzia horiek legez kanpo jotzea gomendatu zuen: AEBetako gobernuak indarrean jarri behar du legislazioa tasatze agentzia horiek legez kanpo uzteko.

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

Itun estrategikoa:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/itun-estrategiko-baten-bila>

Zorra:

<http://es.scribd.com/doc/61923759/Bill-Mitchell-tasatze-agentziak-eta-plan-berria>

- Okzidenteko estatuen zorra aipatzen da, beste garai batzuetan 3. munduko estatuentzat entzuten zen bezala. Zer gertatu da gauzak hala izateko?

Izan ere, Hirugarren Munduari dena lapurtu diogu: baliabide naturaletatik hasita, gero industria hara eraman dugu lan-indarra merkeagoa delako eta gizarte segurantzarik ez dagoelako. Gainera, lan egiteko baldintza kaxkarrak egon dira eta daude. Esan diegu zer nolako esportazioak egin behar zituzten eta zein preziotan. Eta aspalditik finantzaren bidez, Mundu Bankuaren bitartez eta Ipar banku handien bidez, ustiaketa finantzarioari ekin genion.

Baina orain lehen munduan dago negozio biribila. AEBetan Wall Streeteko bankuak dira nagusi (laguntza ederra dute gobernuaren politika ekonomiko neoliberalarekin). Europar gauza bertsua, baina okerrago, zeren Europar Batasunean ez baitago gobernu bakarra, ez dago politika fiskal komunik eta jainko bakarra Europar Banku Zentrala (EBZ) da.

Krisian sartu gaituzten bankuei berei gobernuak (AEBetan) eta EBZ-k (Europar Batasunean) diru-laguntzak eman dizkiete. Zertarako kezkatu Hirugarren Munduaz, negozio izugarria gure ondoan egonik? Gainera, gobernuak eta EBZ bankarien alde egonik? Inperialismo berria finantzarioa da, non eta herrialde industrializatuetan.

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

Wall Street:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/wall-streeteko-sozialismoa>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/klase-borroka-globala>

Europar Batasuna eta EBZ:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/europako-jainko-bakarra-ebz>

Erreskatea:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/erreskatea>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fikziozko-ekonomia>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/dirua-eta-kreditua>

- Gaur egungo nazioarteko egiturek, antolakundeek, egoera horri aurre egin diezaiokete?

Nazioarteko egiturek (NMF, eta Munduko Bankua) hirugarren munduan aplikaturiko politika berak erabili nahi dituzte herrialde industrialetan, neoliberalismoa nagusi izanda, sektore publikoaren inbertsioak murriztuz, gizarte segurantza pribatizatu nahian, soldatak jaitsiz eta abar luzea eta ezaguna. Hortik ezin da ezer espero.

Kontua da, eta jadanik aipatu dugu, finantza politika eta politika fiskala batera doazela. Hortaz, gobernu batek (AEBetan, kasu) eta, beste maila batean EBZ-k (Europar) zenbait neurri martxan jarri beharko lituzkeela, zenbat eta lasterrago orduan eta hobeki.

Zergatik ez jarri martxan ondoko plan hau, Bill Mitchell-ek proposatua?

(i) Finantza merkatuak diziplinatzea. (ii) Etxegintza krisia kalterik gabeko bilakatzea – ordaintze ezaren arriskuan daudenei errenta eta berriz erostea eskaintzak eginez. (iii) Zor publiko gehiago ez jaulkitzea eta Altxor Publikoa Banku Zentralarekin bat egitea – izatez, errealitatean den moduan. (Europar Batasunean (EB) arazoa dago, Altxor Publikoa ez baita existitzen. Horra hor, bada, EBrako lehen eginkizuna.) (iv) **Lanpostu bermea** martxan jartzea eta segurtatzea ezen lan egin nahi duen baina lan topatu ezin duen edozeinek (sozialki onargarri den) gutxienezko soldata bat daukala sektore publikoan, komunitate garapena eta ingurugiro sostengarritasuna aurreratuz. (v) Azpiegitura publikoaren garapenerako esku zabaleko fondoak hornitzea, zeintzuek etorkizuneko oparotasuna babestuko duten - ospitaleak, eskolak. (vi) Energia berriztagarrian ikerketan inbertitzea. (vii) Sistema federaletan estatu desberdinei demo diru-laguntzak hornitzea beraiei permititzea beren behar publikoak betetzeko eta beren eskolak funtzionatzen mantentzeko. (EB-ko estatu ezberdinei *per capita*-ko diru laguntza luzatzea.) (viii) Hezkuntza publikoan Diru Teoria Modernoa ulertzearen aldeko kanpainen inbertitzea. (ix) Itxarotea gastu pribatuaren susperraldirako – pizgarri neurri horietatik etorriko diren errenta handitzeak zor pribatuen mailak kontrolpean jartzen dituen heinean.

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

Krisitik ateratzeko proposamenak:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/krisitik-ateratzeko-proposamen-bat>

<http://es.scribd.com/doc/58955959/Krisia-eta-lanaren-arazoa>

Europarako:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/eurolandia-mon-amour>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/politika-fiskala-eta-zor-publikoa>

Euskal Herrirako:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/euskal-herria-krisiaren-aurrean>

Lanpostu bermea:

<http://es.scribd.com/doc/61923759/Bill-Mitchell-tasatze-agentziak-eta-plan-berria>

Merkatuak diziplinatzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zergatik-ez-plan-hau>

- Ez al da ezer ikasi duela 2-3 urteko krisitik (Leman Brothers-en gainbeheraren garaitik) ?

Espekulatzaileek eta krisia **nahita** martxan jarri zutenek (Wall Street-ekoek) asko ikasi dute. Izatez, bigarren krisia martxan jarri nahi dute, ez badago jadanik abian, eta guk ez dugu ezer ikasi.

Dena den, badago non ikas. Ekonomialari batzuk etengabe daude lanean. Hona hemen bakan batzuk: Warren Mosler eta Randall Wray, AEBetan; Bill Mitchell Australian eta **Diru Teoria Moderno**an aritzen direnak.

Hona hemen edozein herrialde subiranok jakin behar dena eta, ondorioz, berak egin behar duena: (1) Banku zentralak zuzenki Gobernuaren zorra eros dezake beti, eta horrela gastu publikoa erraztu, bono merkatura jo gabe. (2) Atzerritar truke merkatuetan libreki flotatzen da moneta. (3) Gobernuak ez du behar maileguz hartzen atzerritar monetetan. (4) Edozein herrialde subiranok ez du inolako solbentzia arriskurik.

Hala ere, horrek ez du esan nahi arazo guztiak konponduta daudela. Izan ere, herrialde askok langabeziaren tasa handiak dituzte eta beste batzuek zereginik gabeko ahalmen produktiboa. Herrialde horien gobernuak fiskalki arduragabeak dira, zeren beraiek ahalmena baitaukate erabili gabeko baliabide horiek produkzioan martxan jartzeko.

Europar Batasuna (EB) desberdina da. Orain EBZ legez kontra ari da: izan ere, une honetan EBko herrialde batzuen zorra erosten ari da.

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

Fikziozko ekonomia:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fikziozko-ekonomia>

Wall Street-eko sozialismoa:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/wall-streeteko-sozialismoa>

Berrindustrializazioa:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuila-berria-ala-berrindustrializazioa>

Diru Teoria Modernoa, autoreak eta proposamenak:

<http://es.scribd.com/doc/57836726/Diru-teoria-moderno>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zazpi-gezur-politika-ekonomikoan-1>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zazpi-gezur-politika-ekonomikoan-2>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zenbait-gezur-gizarte-segurantzari-buruz>

EB:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/euopar-batasunaz-berriz-ere>

EB, Txina eta Wall Street:

<http://neweconomicperspectives.blogspot.com/2011/08/interview-with-randy-wray-regarding.html>

- Ingalaterran gertatzen diren oldarraldiek krisi honekin loturarik al dute, zure ustez ?

Bai, noski. Ni ez naiz batere determinista, hau da, ez dut sinesten gizarte faktore soil batek (ekonomiko zein politiko nahiz kultural edo sozial edo dena delakoa) historia eta, oro har, gertaerak determinatzen dituela. Baina ezin ukatu faktore ekonomikoak, eta batez ere, faktore finantzarioak oso garrantzi handikoak direnik, eta aparteko eraginak dituztela jendearengan, eta, batez ere, gazteengan, ez baitute aurreikusten inolako etorkizun garbirik.

Oro har, jendeak ere ez du ikusten inolako etorkizunik, ezta politikariek ere, edo ortodoxia ekonomikoan murgiltzen diren hainbat eta hainbat ekonomialariek, nahiz eta aparteko txostenak eta aldarrikapenak egin.

Krisia gurekin dago eta egoten segituko du, ez badira hartzen neurri berezi batzuk. Horretarako, alta, gaurko ekonomia nolakoa den, zertan aldatu den eta nola funtzionatzen duen jakin behar da (dugu!), gero politika egokiak aplikatu ahal izateko. Agian horretarako **Diru Teoria Modernoan** aritzen diren autoreak lagungarri izan dakizkiguke.

Horrelako autore batek, Bill Michell-ek, horrela erantzun dio zure galderari: *Gobernu britainiarri errua leporatzen diot istiluengatik.*

Izan ere, austeritatea da gobernu neoliberalak zabaltzen duten mezu ia bakarra. Gainera, zenbait bazterretan sistemaren porrota gizabanakoengan jarri nahi dute, gobernuen zeregina eta betebeharra, politika fiskal atzerakoiak, espekulazioak eta abar luzetxo existituko ez balira bezala.

Britainiar gobernuak filosofia neoliberalak onartu eta praktikatu du, enplegu osoari bizkarra emanaz, aurrekontu defizitak eginkizun txarrak direla aldarrikatuz (beraz, inbertsio publikoen murrizketak erabiliz), austeritatea beharrezkoa dela behin eta berriz esanez.

Adi: gobernuak, edozein gobernu subiranoak beti izaten ditu aukerak eta ahalmen fiskala lanpostuak hornitzeko. Langabeziak esan nahi du estatuak ez duela nahiko inbertitu. Istiluen aurkako politikarik hoberena **Lanpostu Berme**ko politika sendo eta argi bat martxan jartzea da.

Gai hauetaz sakontzeko, ikus ondoko loturak:

Ingalaterrako oldarraldiak:

<http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=15605>

Job Guarantee (Lanpostu Bermea):

http://e1.newcastle.edu.au/coffee/job_guarantee/JobGuarantee.cfm

joseba felix tobar-arbulu (donejurgi)